



ARLOA

KOMUNIKAZIOA ETA PARTAIDETZA

GAIAK

Informazioaren zabalkundea, komunitatean parte-hartzea, prozesu parte-hartzaileak.

Zer egin dezaket bertan:






- Udalaren informazio orokorra eta jardueren eta ekintzen berri jasotzea (herribizia.errenteria.eus, sare sozialak, webgunea, papereko euskarriak).
- Inkestetan parte hartzea (online, telefonoz edo kalean).
- Partaidetza prozesu irekietan parte hartzea.
- Gonbidapen zuzen bidezko parte-hartzea.
- Wifi sare publikoa erabiltzea (Wifi4EU).

Baliabideak

- **Inkestak.** On-line, telefonoz, kalean... Herritar guztiei edo talde zehatzei bideratuta izan daitezke.
- **Partaidetza prozesu irekiak.** Errenteriako Udalak zenbait kasutan herritar guztiak edo talde zehatzak deitzen ditu euren iritzia erabakiak parte hartzeko prozesuaren parte izan daitezen.
- **Gonbidapen zuzenak.** Erroldako kideen artean ausaz aukeratutako pertsonak gonbidatu egiten ditu udalak zenbait gune edo prozesutan parte hartzera, inkestak betetzera...
- **WIFI sare publikoa.** Errenteriako auzo guztietan zabalduta dago erabilera publikoko wifi sarea. Eraikin publikoen barrualde gehienetan eta kaleetan barrena Wifi4EU sarera lotu daitezke herritar eta bisitari guztiak.
- **Auzo elkarteak** (Udalerriko auzo guztietan). Herritarrek antolatutako elkarteak dira eta beraien helburuen artean daude auzoen arazoengatik inguruan lan egitea eta auzoetako komunitatea saretzea. Kide berriei ateak irekitzeko prest egon ohi dira.

Errenteriako Udala – Komunikazioa eta Partaidetza

Errenteriako Udalak erabakiak hartzeko garaian herritarren iritzia ere kontuan hartzen du. Hori dela eta, hainbat teknikaren bidez euren iritzia eta proposamenak jasotzen ditu.

 Kokapena Herriko plaza z/g (Udaletxea)	 Helbide elektronikoa: Komunikazioa: komunikazioa@errenteria.eus Partaidetza: partaidetza@errenteria.eus
 Telefonoa 943 44 96 00	 Webgunea IUdalaren inguruko informazioa eta on-line tramitazioa: www.errenteria.eus Informazio orokorra eta on-line agendarako lotura: www.herribizia.errenteria.eus
 Sare sozialak Herri Bizia profila FB: https://www.facebook.com/herribizia Instagram: https://www.instagram.com/errenteriaherribizia/ X: @HerriBizia	